BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

2050

EBAZPENA, 2018ko apirilaren 4koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena. Honen bidez argitaratzen da 2017ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzen erakunde onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkartze-egiturak finkatzeko laguntzak arautu eta laguntzetarako deialdia egin zen.

Diru-laguntzen publizitate printzipioaren eta aipatutako aginduak 10.4 atalean dioenaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

2017ko uztailaren 27ko Aginduaren arabera emandako diru-laguntzen erakunde onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Eskabideari emandako espediente-zenbakia, entitate onuradunaren izena eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa adieraziko dira, erabaki honen eranskinean azaltzen den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 4a.

Gizarte Ekonomiaren zuzendaria,
JOAQUÍN DÍAZ ARSUAGA.

ERANSKINA

Espedientea	Entitate onuradunak	Zenbatekoa
ES 001-17	ERKIDE	212.840
ES 002-17	ASLE	106.420
ES 003-17	KONFEKOOP	50.000
ES 004-17	Euskadiko Nekazari-Elikagaien Kooperatiben Federazioa	50.000
ES 005-17	IKASGILTZA	32.588
ES 006-17	BIZIKOOP	29.075
ES 007-17	REAS	50.000
ES 008-17	EHLABE	37.087
ES 009-17	BEREZILAN	5.405
ES 010-17	UPTA	34.887
ES 011-17	AVA	35.943